

ERASMUS+ PLAZA EMAN ETA ONARTU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK

Edukiak:

1.	ESLEITUTAKO PLAZAREN KONTSULTA.....	2
2.	MUGIKORTASUN-PLAZA BAT ONARTU ONDORENGO PROZESUAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA.....	5
2.1.	Bidaia hasi AURRETIK.....	6
2.1.1.	Konpromiso akademikoa eta matrikula	6
2.1.2.	Asegurua eta Europako Osasun Txartela.....	6
2.1.3.	Hizkuntza-proba OLS plataforman	7
2.1.4.	ERASMUS+ dirulaguntza hitzarmena (SEPIE BEKA)	7
2.2.	Mugikortasuna HASTEAN	8
2.2.1.	Hasiera ziurtagiria	8
2.3.	Egonaldia AMAITU ONDOREN	8
2.3.1.	Egonaldi amaierako ziurtagiria.....	8
2.3.2.	Erasmus + ikaslearen azken txostena	8
3.	MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"	9

BALDINTZAK ONARTUTA dituen plaza markatu, eta dokumentazioaren menua zabaltzen da:

Egindako eskaerak mugikortasun-urte honetarako: 2016/17						
Eskaera-zk.	15305	Inprimakia				
Lehentasun-zk.	Programa	Helmugako unibertsitatea	Traupena	Lauhileko-zk.	Egoera	Eskaera-data
☐ 1	Erasmus +	Politechnika Gdanska (Polonia)	5 Hilab	1	Plazarik gabe	2015/12/10
☐ 2		VSŠ - Technical University of Ostrava/VSŠ - Technická Univerzita Ostrava (Txekiar Errepublika)	6 Hilab	1	Plazarik gabe	2015/12/10
☒ 3		VSŠ - Technical University of Ostrava/VSŠ - Technická Univerzita Ostrava (Txekiar Errepublika)	6 Hilab	1	Baldintzak onartuta	2015/12/10
☐ 4		POLITECHNIKA ŚLASKA-SILESIAŃSKA UNIVERSITY OF TECHNOLOGY (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10
☐ 5		POLITECHNIKA ŚLASKA-SILESIAŃSKA UNIVERSITY OF TECHNOLOGY (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10
☐ 6		POLITECHNIKA BIAŁOSTOCKA (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10
☐ 7		HOCHSCHULE DEGGENDORF-DEGGENDORF UNIVERSITY OF APPLIED SCIENCES (Alemania)	5 Hilab	1	Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10
☐ 8		Technologiko Ekpedefitiko Idrima (TEI) of Larissa (Grezia)	5 Hilab	1	Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10

Dokumentazioa	
JARRAIBIDEAK	Deskargatu
IKASLEEN BETEBEHARRAK	Deskargatu
HELBURUKO IKASTEGIARI BIDALTZEKO INSKRIPZIOA	Deskargatu
ISTRIPU ETA ABERRIRATZE-ASEGURU BAT SINATZEA	Deskargatu
NOLA EGIN HITZARMEN AKADEMIKOA	Deskargatu
ERASMUS IKASLEAREN GUTUNA	Deskargatu
DIRULAGUNTZAREN HITZARMENA. SEPIE BEKA	Deskargatu
IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA	Deskargatu
OSO GARRANTZITSUA: OHARRA: MECB BEKARIK EZ DAGO	Deskargatu
OSO GARRANTZITSUA: KUTXABANK BEKAREN OHARRA	Deskargatu
ERASMUS GOMENDIOAK	Deskargatu
OLS HIZKUNTZAREN PLATAFORMAREN ERABILERA	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE ASEGURUAREN ARGIBIDEA	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE ASEGURUAREN PROTOKOLOA	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE INPRIMAKIA (90EGUN BAINO GUTXIAGO)	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE INPRIMAKIA (90 EGUN BAINO GEHIAGO)	Deskargatu
15-16 CUM LAUDE ASEGURUAREN ARGIBIDEA	Deskargatu
15-16 CUM LAUDE ASEGURUAREN INPRIMAKIA	Deskargatu
ERASMUS IKASLEEN JARRAIPENA KONTSULTA	Deskargatu

Xehetasunak	Ziurtagiriak	Uko egitea
-----------------------------	------------------------------	----------------------------

Dokumentu batzuk zure egonaldian zehar gaituko dira. **DOKUMENTUEN ZERREDA URTE AKADEMIKO BATETIK BESTERA ALDA DAITEKE (hortaz, baliteke aurreko irudiaren zerrendarekin bat ez etortzea).**

Jarraian, **pantailako botoi orokorrak** deskribatzen dira.

- **INPRIMAKIA** botoia: ikaslearen eskaera inprima daiteke.
- **ZIURTAGIRIAK** botoia: programako Ikasle Ziurtagiria gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez inprima daiteke.
- **UKO EGITEA** botoia: ikasleak edonoiz uko egin diezaioke mugikortasunari. (Jarraibideak Nazioarteko Harremanetan argitaratutako 7. Puntuan, PLAZA ONARTZEKO EDO UKO EGITEKO EGIN BEHARREKOAK. URRATSEZ URRATS)
- **XEHETASUNAK** botoia: ikasleak Nazioarteko Harremanen Bulegora igorri dituen eta jaso diren inprimakiak kontsulta ditzake. 1. Blokean, egonaldiaren jarraipenaren dokumentuak, eta 2. Blokean, eskaera egin zuenean balioetsi beharreko dokumentazioa.

Datu akademikoak					
Programak	Beste eskaerak	Diru-laguntzak			
Eskaera					
Eskaera-urtea	2012/13				
Eskaera-zk.	6982	Lehentasan-zk.	1	Programa	Erasmus / LLP
Helmugako unibertsitatea	Politecnico di Milano (campus Leonardo)			Herrialdea	Italia
Hilabete	10	Lauhileko-zk.			
Egoera	Baldintzak onartuta		Eskaera-data	2012/01/19	
Jasotako dokumentazioa					
Dokumentazioa				Entregatua	Harrera-data
Helduera-ziurtagiria				☐	
Egonaldi-amaieraren ziurtagiria				☐	
Konpromiso Akademikoa/Learning Agreement				☒	2014/06/16
(OIAPEE) Erasmus diru-laguntzen hitzarmena				☐	
Erasmus azken txostena				☐	
Aseguru medikoa				☒	2014/05/20
Baloratu beharreko dokumentazioa					
Dokumentazioa				Entregatua	
ESKAERA					
AUKERA LIBREKO KREDITUEN AMORTIZAZIOA					

2. MUGIKORTASUN-PLAZA BAT ONARTU ONDORENGO PROZESUAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA

Bekaren lehen ordainketa jasotzeko kudeatzea (70%)	Mugikortasuna hasi AURRETIK	Konpromiso akademikoa eta matrikula	Ikastetxeko edo fakultateko Koordinatzailearekin harremanetan jarri
		Asegurua eta Europako Osasun Txartela	Bidali poliza eta ordainketako banku-ziurtagiria Ikastetxeko edo fakultateko Koordinatzaileari
		Erasmus+ dirulaguntza hitzarmena (SEPIE beka) ♦	Bidali NHB-ri* nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
		OLS hizkuntza-proba egitea	E-posta bat jasoko duzu estekarekin eta jarraibideekin ols.internacional@ehu.eus
Bekaren bigarren ordainketa jasotzeko kudeatzea (gainontzekoa)	Mugikortasuna HASTEAN	Hasiera ziurtagiria	Bidali NHB-ri* nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
		Amaierako ziurtagiria	Bidali NHB-ri* nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
Bekaren bigarren ordainketa jasotzeko kudeatzea (gainontzekoa)	Mugikortasuna AMAITZEAN	Erasmus+ ikaslearen azken txostena	eu-corporate-notificationsystem@ec.europa.eu helbideko mezu elektronikoko bat jasoko duzu, inkesta egiteko estekarekin

*NHB: Nazioarteko Harremanetarako bulegoa

♦ → Diru-laguntzaren hitzarmena eskabidean adierazitako posta elektronikora bidaliko da, eskuragarri dagoen heinean.

Mugikortasun-programako zure parte-hartzea behar bezala izapidetzea ondoren aipatuko dizkizugun dokumentuak adierazitako epeetan bidaltzearen baitan egongo da (movilidad.internacional@ehu.eus). Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubideak galtzea eta ikasketa- kontratua eta diru-laguntzaren kontratua ezeztatzea eragin dezake.

2.1. Bidaia hasi AURRETIK

2.1.1. Konpromiso akademikoa eta matrikula

Behin zure helmuga jakiten duzunean, zure ikastegiko koordinatzailearekin harremanetan jarriko zara ikasketa-gaiekin zerikusia duten xehetasunak eztabaidatzeko eta **EWP aplikazioaren bitartez**, LEARNING AGREEMENT-KONPROMISO AKADEMIKOA betetzeko.

Konpromiso akademikoa egin ezean, UPV/EHUko ikasle gisa matrikulatuta agertuko zara, baina EZ trukeko ikasle gisa. Hartara, ezin izango dituzu baliozkotzeak egin, eta ez da inon agertuko mugikortasun-programa batean parte hartu duzula.

Garrantzitsua da konpromiso akademikoaren edozein aldaketa zure koordinatzaileari jakinaraztea; baita aldatzeko asmoa ere.

Matrikula UPV/EHUn egingo duzu automatrikulako sistemaren bidez, argitaratzen diren datetan.

2.1.2. Asegurua eta Europako Osasun Txartela

Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da.

Bidaiarako aseguru bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. **Aseguru horren kopia bat aurkeztu beharko da zure fakultatean** koordinatzaileak Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatu ahal izateko. Aseguruaren **kopia hori aurkezten EZ bada, ez da Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatuko** eta ikaslea programatik at geratuko da eta salbuetsita geratuko da Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa- prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak kudeatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa- prozesuetatik at geratuko zara.

Aseguruaren eskakizunei buruzko informazio gehiago mugikortasun programaren webgunean aurkituko duzu: **Istripu eta aberriratze-asegurua kontratatzea**.

2.1.3. Hizkuntza-proba OLS plataforman

Erasmus+ mugikortasun baten onuradunek hizkuntza-test bat egin beharko dute OLS plataforman, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak emandako jarraibideak betez. Test hau egitea beharrezkoa da. Ez du axola zer hizkuntza-ziurtagiri duen.

Erasmus mugikortasuneko partaide gisa, hainbat hizkuntzako ikastaroak egiteko aukera dago. Ikastaro hauek doakoak dira, online eta interesgarriak izan daitezke mugikortasunaren hizkuntza hobetzeko edo berri bat praktikatzeko. Kurtso hauen inguruko informazioa eta OLS plataforman sartzeko esteka posta pertsonalera bidaliko dira, mugikortasuna hasi aurretik.

OLS hizkuntza-probari buruzko informazio gehiago [OLS webgunean](#).

2.1.4. ERASMUS+ dirulaguntza hitzarmena (SEPIE BEKA)

Nazioarteko Harremanen Bulegotik (NHB), posta elektronikoz bidaliko da ERASMUS+ Diru-laguntza Hitzarmena (SEPIE BEKA), behin irakurri, bete eta sinatuta, NHBra bidal dezazun, iritsi den mezuari erantzunez.

GAUREn bitartez eskaera egitean adierazitako kontu-zenbakian ordainduko zaio laguntza onuradunari. **Lehenengo ordainketan**, EBren Erasmus+ funtsetatik eskuratutako zenbatekoaren **%70oren** kopuru baliokidea ordainduko da. Hori kobratzeko, honako dokumentuak egon behar dira GAUREn erregistratuta: konpromiso akademikoa, aseguru medikoa, dirulaguntza hitzarmena eta hasiera ziurtagiria.

Gainerako zenbatekoa jasotzeko, egonaldiaren amaiera ziurtagiria egon beharko da erregistratuta eta, **EBren online galdetegia** beteta eduki beharko duzu.

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da SEPIEk komunikatutako zenbatekoa eta GAUREn grabatutako plazaren hilabete kopurua biderkatzetik ateratako emaitza (ikus **Diru-laguntzak** atala). Nolanahi ere, egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren datak kontuan hartuko dira, mugikortasunaren hilabete errealak egiaztatzeko.

Adi: Egiaztatu gabeko hilabeteengatik jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatuko da.

2.2. Mugikortasuna HASTEAN

2.2.1. Hasiera ziurtagiria

"Dokumentazioa" atalean eskura daiteke GAUReko zure profilean eta deialdiaren weborrian. Helmugako unibertsitatean sartzen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora igorri behar duzu (nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus) helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, erakunde horretan sartu zareneko data berresten duena.

Ziurtagiri honen jaulkipen-data ezin da inola ere ikaslearen hasiera-data baino lehenagokoa izan.

2.3. Egonaldia AMAITU ONDOREN

2.3.1. Egonaldi amaierako ziurtagiria

"Dokumentazioa" atalean eskura daiteke GAUReko zure profilean eta deialdiaren weborrian. Helmugako unibertsitatean zure egonaldia amaitu eta **hilabete igaro baino lehen**, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora igorri behar duzu (nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus) helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, zure egonaldiaren amaiera berretsi eta hasieta eta amaiera datak jasotzen dituen.

Ziurtagiri honen jaulkipen-data ezin da inola ere ikaslearen hasiera-data baino lehenagokoa izan.

2.3.2. Erasmus + ikaslearen azken txostena

GAURen egonaldiaren amaierako ziurtagiria erregistratutakoan, mezu bat bidaliko da "ikasle" helbide elektronikora eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbidetik.

Adi: Mezua spam karpetara irits daiteke. Ezin da mezua noiz iritsiko den data zehatza zehaztu.

3. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak MAECeko bidaiarien erregistroan izena emateko gomendatzen du. Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren zerbitzu elektronikoa honetan ikasleak harremanetarako datuak eguneratu ahal izango ditu, premiazko kasuetan haiekin harremanetanjarriahal izateko.

Nazioarteko Harremanetako Bulegoa

Bibliotekako eraikina 2.solairua

48940 Leioa (Bizkaia)

Tfnoa.: 94 601 2000

E-maila: movilidad.internacional@ehu.eus